

## SARRERA

Francisco de Vitoriako 4 ikasle gara. Aho eta hortzen higienearen 2. maila bukatzeaz gaude. Goi mailako ziklo hau egitea erabaki genuen osasunarekin erlazioa duen lanbideak gustatzen zaizkigulako, gure ingurukoei zein beste pertsonei laguntzea gustatzen zaigu eta aukera ezin hobea ikusi genuen nahi genuen hau ikasi ahal izateko.

Aurretik aipatu bezala jendeari laguntzea edo beraien ohitura osasuntsuak areagotzea gustatzen zaigu, eta irakurtzen joanez gero ikusiko duzue gure lanak lotura handia duela.

Laburbilduz, gure lanean zehar osasun mentala sustatzeko eta guztiok horretarako eskubidea izateko martxan jarri nahi dugun aplikazioa sortu dugu. Nola eramango dugun aurrera azalduko dugu eta baita arazo honek gure inguruan zer nolako ondorio dituen ere. Gainera badakigu familia guztiek ez dutela psikologo bat ordaintzeko baliabideak eta gure proiektua beraienezat malguagoa izan daiteke. Guretzat ohitura osasuntsuak izatea eta gaixotasun mentalak tratatzea ezinbestekoa da gizarte eroso eta egonkor bat sortzeko, beraz, zergatik ez gara gure buruak zaintzetik hasten?

Gure helburu nagusia indibiduo bezala, guztiok osasun mentala zaintzeko eskubidea lortu da eta modu hau ezin hobea ikusten dugu.